

BATZARRAK ERATZEKO ARAUAK

I.- Aldez aitzin bete beharrekoak

a) **Hautetsien egiaztagutunak aurkeztu.**- Presidenteak eta hautetsi guztiek hala direla ziurtatuko duen egiaztagutuna aurkeztu beharko diote Kontzejuan kargua uzten duen presidenteari. Halaber, Zonaldeko Hauteskunde Batzordeak, kontzejuak eratu aitzin, hautetsien izaera ziurtatuko duten egiaztagiriak igorriko ditu kontzejuetara.

b) **Hautetsiek interesak aitortu behar dituzte.**- Kontzejuetako hautetsi guztiek, beren karguaz jabetu aitzin, izan dezaketen bateraezintasunari eta diru-sarrerak sortzen dizkieten edo sor diezazkieketen edozein jarduerari buruzko aitortpena egin beharra daukate. Halaber, beren ondareari buruzko aitortpena ere egin beharra daukate. Aipatu aitortpena udalbatzak edo batzarrak onartutako ereduetan egin behar da. Nolanahi ere, aipatu eredu hori oraindik onartu ez bada, NUKFn badira horretarako ereduak behar dituztenendako.

c) **Egindako azken bileraren akta onetsi.**- Aurreko bileraren aktaren onespena hauteskunde-legeriak Batzarrak eratzeko bilera egiteko ezarrita duen data baino hiru egun lehenago eginen da. Batzarrak abenduaren 7an eratu behar direla kontuan hartuta, Batzarrak abenduaren 4an (Antolamendu eta Jarduera Araudiak -AJA- bere 36. artikuluan xedatutakoaren arabera) bilera egin beharko du azken bilkuraren akta onartzeko, soil-soilik.

d) **Ezohiko kontaketa eta ondarearen inbentarioa prestatu.**- Kontzejua utziko duen presidenteak Udalbatza hautatu berria eratuko den egunean ezohiko kontaketa egitearren, eta esku-dirutan dauden izakinen eta Entitateak kutxetan nahiz Bankuetan dituen berezko baloreen egiaztagiriak eguneratuta egon daitezen, beharrezkoak diren dokumentuak prestatu behar ditu.

Kontzejuaren ondarearen inbentarioari dagozkion dokumentuak prestatu, egiaztatuak izan daitezen, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Arautegiko 88.1 artikulua betez.

e) **Udalbatza osatzeko bilkura deitu.**- Udalbatza osatzeko bileraren deia presidente eginkizunetan dagoenak egin behar du bilera-eguna baino bi lanegun, gutxienez, lehenago, eta, ahal bada, zirkular honetan jasotako Antolamendu eta Jarduera Araudiak -AJA- bere 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kitapena egin ondoren. Deialdian bilera zein orduan eta lekutan eginen den jasoko da, Kontzeju-etxeko bilera-aretoan, hain zuzen ere.

Kargua uzten duen presidenteak, etortzerik izan ez duelako, gaixotasunagatik, nahi izan ez duelako edo beste edozein arrazoi dela-eta, bilera deitzerik izanen ez balu, hautetsiek kontzejua eratzeko bileraren ordua finkatuko dute, aldez aurretik adostutako erabakia hartuta.

II.- Batzarra eratu

Hauteskunde Legeariaren arabera, kontzejuetako batzar hautatu berriak eratzeko bilkura abenduaren 7an egingen da. Bilera horretan Batzarra eratutzat joa izan dadin, hautetsien erabateko gehiengoa bertan egotea ezinbestekoa izanen da. Aipatu gehiengoa lortzen ez bada, bilkura bi egun barru egin (abenduraren 9an, alegia), eta Udalbatza eratu da zinegotzi-kopurua edozein dela ere.

Eratze-saio horretan, lehenengo eta behin, Adineko Mahaia osatuko dugu. Aipatu Mahaiaren eginkizunik garrantzitsuenak egiaztatutakoak eta akreditazioak egiaztatzea eta hautetsiei zina edo promesa hartzea izanen dira. Hauteskundeei buruzko legeriak xedatutakoaren arabera, Adineko Mahaia adinez zaharrenak eta gazteenak osatuko dute, eta idazkaria kontzejukoa bera izanen da. Une horretan kontzejuak idazkaririk ez duenez, Toki Administrazioei buruzko Foru Legeak Batzarreko kideetako bat izatea aurreikusten du; horrenbestez, bidezkoa litzateke idazkari lanetan Mahaiko adinez gazteenak jardutea. Mahaiaren presidentea, berriz, adinez zaharrena izanen da.

Adineko Mahaia eratuta, egiaztatutakoak eta akreditazioak egiaztatuko dira, eta hautetsi guztiei zin edo promesa hartuko zaie. Kontuan izan behar da kontzejuko kide eta presidente izateko, ezinbestekoa dela Konstituzioari zin edo promesa egitea. Nolanahi ere, zin edo promesa ez egiteak ez dio kontzejukide edo presidente izaera automatikoki kentzen.

Bestalde, presidentek zin eta promesa egin beharko du presidente eta kontzejukide den aldetik. Zin egin ondoren, bileraren buru izanen da.

Auzitegi Konstituzionalak 2014ko uztailaren 7ko epaian berretsitakoaren arabera, presidentekarguari uko egiteak ez dakar berarekin kide-kargua uztea, aurkakoa ebatzi ezean.

Gomendagarria litzateke bilera horretan batzarkideen artean idazkaria eta diruzaina ere aukeratzea, Toki Administrazioei buruzko Foru Legeko 90. artikulua xedatutakoa betez.

Azkenik, oroitu eratze-saioan ezohiko kontaktaren berri eman behar dela, eta, halaber, kontzejuaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa egin behar dela. Eginkizun horiek presidente aukeratu berria, bere kargua utziko duen presidentea eta ordura arte kontzejuaren diruzain edo gordailuzain izan dena bertan direla egin beharko dira, eta aktan jasoko dira.